EUSKALGINTZA. Bi hedabideek elkarlana sakontzeko xedea agertu dute atzo Baionan

'Herria'-k eta EUSKALDUNON EGUNKARIAk lankidetza hitzarmena izenpetu dute

Iparraldeko astekariko herrietako berriak EGUNKARIAren webgunean daude irakurgai atzodanik

HELBIDEAK

Honako helbideetan aurkitu ahal izango du irakurleak Ipar Euskal Herriko herrietako informazioa.

www.egunkaria.com/lapurdi
www.egunkaria.com/zuberoa
www.egunkaria.com/nafarroa-beherea

Nora Arbelbide | **BAIONA**

Duela astebete Bizkaiko herrietako informazioa on-line aurkeztu zuen EGUNKARIAk, Euskaltzaindiaren Bilboko egoitzan. Atzo, berriz, Lapurdiko, Nafarroa Behereko eta Zuberoako herrietako informazio zerbitzua on-line aurkeztu zuten, Baionako Mattin Megadendan, *Herria* astekariak eta EUSKALDUNON EGUNKARIAK. Informazioa *Herria* astekarian hartua da. Izan ere, *Herria*-k eta EGUNKARIAk lankidetza abiatzeko ituna izenpetu zuten atzoko ekitaldian.

Martxelo Otamendi EUSKALDUNON EGUNKARIAko zuzendariak azpimarratu zuenez, botere kontzentrazioaren eraginez «oso esku gutxiren artean geldituko dira hedabideak; nola egingo diogu horri aurre euskal komunikabideok, nor bere aldetik ibilita?». Hori dela eta, «elkarlana sustatu» nahian dabiltza *Herria* eta EGUNKARIA; Jean Battitte Dirassar aldizkariko erredakzio buruak adierazi zuenez, «bakoitzak bere nortasuna atxikiz». Aurrerantzean elkarrekin beste arlo batzuk lantzeko gogoa berretsi zuten atzo *Herria*-k eta EGUNKARIAk.

Herrietako kronikak sarean

Hala, ostegunetan *Herria*-n irakurtzen ahalko diren herrietako kronikak ostiralean berean EGUNKARIAren webgunean aurkitzen ahalko dira. Artikuluak idatziak diren euskalkietan agertuko dira. Horri esker, «zuberera maiz irakurtzeko aukera» izanen dela adierazi zuen Martxelo Otamendik. Lau haizeetara hedatuak diren euskaldunek beren herrietan gertatu denaren berri ukan dezakete hemendik aintzina. Aste horretako *Herria*-k ekartzen dituen berriez gain, aitzineko lau asteetako berrien bilduma ere aurkitu ahal izango da webgunean.

Informazioaz gain, *Herria*-k ekar dezakeen balio soziolinguistikoa atxikia da. Izan ere, hizkuntza normalizatzeko egiten diren urrats guztietan, «beti begi bat jarria dute gure adituek *Herria*-ren estiloan», Otamendik erran zuenez.

Herria-k dakarren informazioaz gain, herrietako agenda eta zinemarekin lotura zuzena egin dezake internautak, EGUNKARIAren agendarekin lotuta egongo baitira herrietako orriak.

Herrietako berriak sakondu

Elkarlan horren ideia herrietako albisteetan zegoen defizita betetzeko xedearekin hazi zen EGUNKARIAren barnean. Orain dela urte batzuk herri informazioa lantzen hasi zen EGUNKARIA. Edizio nazionalaren ondoan, *Nafarkaria* asterokoa duela zortzi urte banatzen du EGUNKARIAk, eta *Bizkaia* eguneroko edizioa duela urtebete, baita webgunean ere. Orain, Lapurdiren, Nafarroa Beherearen eta Zuberoaren aldia izan da. Hurrengo urratsa gelditzen diren bi herrialdeekin, hala nola Gipuzkoa eta Arabarekin, egin nahi du EGUNKARIAk.

Herria astekaria, sarean lehen urratsak egin ondoren, ez da horretan gelditzekotan. «Lehen etapa izan da», zehaztu zuen Dirassarrek, eta agian egun batez *Herria* osorik Interneten eskainiko dute, atzoko hitzarmenaren beste urrats bat osatuz. Jean Haritxelhar Euskaltzaindiko buru eta *Herria*-ko zuzendariordeak, Emile Larre *Herria*-ko zuzendariak eta Dirassar idazle eta erredakzio buruak bide horretarik segitzeko nahikaria adierazi zuten atzoko ekitaldian.



BOB EDME

Martxelo Otamendi, Emile Larre eta Jean Battitte Dirassar, atzoko aurkezpenean, Baionan.

'HERRIA' ASTEKARIA

Herritik webgunera

Lapurdi, Zuberoa eta Nafarroa Behereko herrietako kronikak dira batez ere nagusi *Herria* astekarian. Ondoan, aktualitatea markatu duten beste gai batzuk ere jorratzen ditu. Bada orain 57 urte honela dabilela. EUSKALDUNON EGUNKARIArekin egin lankidetza hitzarmenari esker, paperetik sarera pasatzeko aukera ukan du hedabideak.

Astekarian dauden herrietako kronikez gain, «*Herria*-k duen balio sozio-linguistikoa hedatuko da lau haizeetara», Martxelo Otamendi EGUNKARIAko zuzendariak azpimarratu zuenez. Izan ere, gaur egun, hizkuntza arloan aberastasuna izateaz gain, erreferentzia bihurtu da Euskal Herri guztiarentzat. Hain zuzen, euskalkietan idatziak dira artikuluak. Nafarrera-lapurteraz gehienbat, baina zubereraz ere irakur daitezke testuak. Bertan ari dira lanean, besteak beste, Jean Haritxelhar Euskaltzaindiko buru eta *Herria*-ko zuzendariordea, Emile Larre *Herria*-ko zuzendaria,eta Jean Battitte Dirrasar idazle eta erredakzio burua.

Herrietako ordezkariek laguntzen dituzte. Hala nola Jean-Louis Davant Euskaltzaindiko kideak Zuberoako berriak ematen ditu, zubereraz, eta atzoko hitzarmenari esker *Herria*-ren paperezko bertsioa jasotzen ez dutenek hemendik aurrera zubereraz idatzitako testuak irakurri ahal izango dituzte Interneten. *Euskalduna* kazetaren hutsunea bete nahi izan zuen *Herria* astekariak 1944an. Hala, 1944tik gaur egun arte bizirik segitu du. Hitzarmenarekin urrats garrantzitsu bat egin du astekariak.

JAURLARITZA

Hezkuntza eta Etxebizitza sailburuorde berriak izendatu dituzte

Erredakzioa | **GASTEIZ**

Eusko Jaurlaritzako Gobernu Kontseiluak sailburuorde berriak izendatzeko lehenengo dekretuak onartu zituen atzo, sailburuek kargua hartu eta astebetera. Izendatu berriak Hezkuntza, Administrazioko, Gizarte Gaietako eta Etxebizitzako sailburuordeak dira.

Horrela, Sabin Intxaurraga buru duen Hezkuntza Sailari dagokionez, aipagarriak dira Nekane Agirre eta Jon Barrutiaren kargu aldaketak: hurrenez hurren, Hezkuntza eta Unibertsitate sailburuordetzak beteko dituzte. Berrikuntza Pedagogikorako zuzendaria izan zen Agirre Inaxio Oliveriren taldean, eta Barrutia, ostera, Unibertsitate zuzendaria.

Bestetik, Intxaurragak orain arte Justizia Sailean lankide izan duen Iñaki Ezkurra eraman du Hezkuntzara, hain zuzen, Administrazio eta Zerbitzuak sailburuorde ardura betetzeko.

Koldo Arrese Anjeles Iztuetaren ordez

Justizia, Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailean ere aldaketak egin dituzte. Horrela, Koldo Arresek Gizarte Gaietarako sailburuorde kargua beteko du, hain zuzen, sailburu izendatu duten Anjeles Iztueta ordezkatzeko. Bestalde, Maria Teresa Amezketa Zerbitzuen zuzendari berria izango da.

Bestalde, Joseba Azkarraga buru duen Lurralde Antolaketa, Etxebizitza eta Ingurumen Sailean, Ignacio Maria Zabalak Lurralde Antolaketa eta Etxebizitza sailburuorde ardura izango du, Miguel Angel Delgado ordezkatuz. Zabala, Planifikazio zuzendaria izan da Patxi Ormazabalen agindupean.

Alvaro Amann-en Garraio eta Herri Laneteko Sailean, ostera, zuzendari bi izendatu dituzte: Joseba Iñaki Gurtugai Zerbitzuen zuzendaria eta Jose Maria Olazagirre Garraio Azpiegiturena.